



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

A photograph of three young adults, two women and one man, looking at a laptop screen. They are all smiling and appear to be in a collaborative learning environment. The man is in the background, wearing a grey hoodie with 'Jack & Jones' written on it. The woman on the left has short dark hair and is wearing a white top with a patterned collar. The woman on the right has long blonde hair and is wearing a blue jacket. The background shows a modern interior with wooden accents and large windows.

# IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUA

[www.mondragon.edu/iko](http://www.mondragon.edu/iko)

*"Bi ezaugarri esanguratsurekin deskribatuko nuke Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradua: praktikotasuna eta dinamismoa. Edukiak ikasleoi helarazteko erabiltzen den metodologia berritzaileak ikasleari egiten ikasteko aukera ematen digu, ikus-entzunezko proiektu errealak eginda"*

**MALEN ILLARRAMENDI**

3. MAILAKO IKASLEA

**KOMUNIKAZIOA  
GUSTUKO BADUZU,  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEKO  
IKUS-ENTZUNEZKO  
KOMUNIKAZIOA DA  
AUKERATU BEHAR  
DUZUN GRADUA.**

Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradua zuzenduta dago, modu praktiko eta sortzailean, egungo komunikazio eta ikus-entzunezko arloetan murgildu nahi duenari.

# Hezkuntza eredu berritzailea topatuko duzu MENDEBERRI 2025

Mondragon Unibertsitatean buru-belarri sartuta gaude "Mendeberri 2025" hezkuntza eredu berrian. Eredu honek 1999. urtean sortutako Mendeberri proiektu berritzailean du oinarria.

"Mendeberri 2025" proiektuak, profil profesionalean ez ezik, pertsonaren garapenean jartzen du indarra, XXI. mendeko desafio teknologiko, ekologiko eta sozialei aurre egiteko.

Ikasleen garapen pertsonalean indar egiteaz gain, beste zenbait berrikuntza ere txertatu ditugu curriculumean: berbazko feedbackean oinarritutako ebaluazio-eredu kualitatiboa, adibidez, edota erronketan oinarritutako diziplinarteko moduluak.

Modulu bakoitzak zenbait aste irauten du eta denbora-tarte horretan, ikasgai atomizatuen eredu a gaindituta, erronka horretan zentratuko zara.

Honako ezaugarriak izango dituen ikasleak hezi nahi ditugu "Mendeberri 2025" egitasmoarekin:

- **Munduko herritarra.**
- **Identitate eta helburu pertsonalak izango dituen.**
- **Pertsona kooperatiboa.**
- **Komunikatzailea eta komunikazio-bideratzailea.**
- **Ikastun aktiboa.**
- **Ikastun malgua.**

## Nola ikasiko duzu?

Oso **modu praktikoan** landuko dituzu komunikatzaile baten konpetentzia profesionalak: moduluka jardunda, talde-lanean, aurkezpen askoren bidez, proiektu errealak gauzatuta, komunikazio-enpresa eta erakunde zein elkarteetan praktikak eta benetako proiektuak burutuz...

## Proiektuekin

Era askotako proiektuak gauzatzeko aukera izango duzu Graduan, adibidez:

- **Film laburra.**
- **Dokumentala.**
- **Irratsaioa.**
- **Gidoiak.**
- **Sareko multimedia edukiak.**
- **Animazioa eta grafismoa.**
- **Argazkilaritza.**
- **Zinema jaialdi baten antolaketa.**
- **Marketin kanpaina.**

## Bi ziklo bi ibilbideetan

Bi ziklotan dago antolatuta Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua. Lehenengo zikloak 1. eta 2. ikasturteak hartzen ditu. Ziklo hau baliatuko duzu komunikazioaren esparru zabala ezagutzeko eta hurbiltzeko bertako hainbat arloa: Internet, irratia, telebista, zinema, prentsa idatzia...

Bigarren zikloa, aldiz, ibilbideena da. 3. eta 4. mailetan, bi ibilbide zehatz izango dituzu aukeran:

### 1 IKUS-ENTZUNEZKO SORMENA

Ibilbide honetan, era guztietako ikus-entzunezkoak egingo dituzu. Aukera izango duzu **ikus-entzunezko baten sorkuntzan dauden rol eta lanpostuak ezagutzeko** eta horietan aritzeko. Esaterako, produkzioa, errealizazioa, zuzendaritza, gidioen sorkuntza, argiztapena eta soinua, grafismoa, edizioa...

### 2 KOMUNIKAZIO DIGITALAREN KUDEAKETA

Ibilbide honetan jorratuko dituzu, bereziki, esparru digitaleko lanbideak. Bigarren ibilbide hau lotuta dago **erakundeen komunikazio korporatiboarekin**, betiere, ikus-entzunezkoek esparru horietan duten garrantzia ardatz hartuta. Gainera, landuko dituzu esandakoekin lotutako ezagutzak, hala nola marketina, komunikazio-planen diseinua, produktuen zabalkunde-prozesuak eta ekitaldien antolaketa.

## **Lortuko duzun profil pertsonala**

Kompetentzia profesionalak jorratzeaz gain, gradu hau eginda prestatuko zara, besteak beste, izateko **komunikatzaile konprometitua, kooperatiboa, euskalduna, kritikoa, sortzailea, ekintzailea, malgua eta gizarte-eraldatzailea**, bizitza osoan ikasten jarraitzeko gaitasuna erakutsiko duena.

## **Tutorea bidaide izango duzu**

**Zu zeu izango zara zeure ikasketa-prozesuaren protagonista.** Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, kon-tuan hartzen dugu pertsona bakoitzak bere bide propioa egin behar duela. Horretarako, tutore bat izango duzu, zure garapen pertsonal eta profesionalean aurrera egiten lagunduko dizuna.

## **Praktikak eta Gradu Bukaerako Lana (GBL)**

**Komunikazioko alor guztietako enpresetan egin ahal izango dituzu praktikak.** Horretarako, erakunde askotako eskaerak jasotzen ditugu ikasturtero; zuk ere proposatu ahal izango duzu praktikak non egin nahi dituzun. Praktikek aukera emango dizute bertatik bertara ezagutzeko komunikatzailearen lanbidea eta lanbide horren benetako testuingurua.

Gradu Bukaerako Lanek (GBL), bestalde, enpresa edo erakundeen kezka edo arazo errealei erantzuten diete. Azterlan akademiko-praktiko sakon horren helburua da, beste batzuen artean, harremana sustatzea ikaslearen eta komunikazio erakundearen artean.

Beste askoren artean, honako erakundeekin egin ahal izango dituzu praktikak eta Gradu Bukaerako Lana:

PRAKTIKAK eta GBLak

**EiTB Berria TEC Monterrey Goiena Tabakalera Goierriko Hedabideak Euskaltzaleen Topagunea Canal Audiovisual Bizkaia Kaebnai Nazioarteko Mugikortasuna Gerediaga Elkartea AZK Komunikazioa Arteman Komunikazioa Sr. & Sra ekoizpenak Kursaal Promociones Audiovisuales SL Dibulitoon Studio Uroladeko Komunikabideak BLB Komunikazioa Ikom Irudi eta Komunikazioa Euskal Wikilarien Elkartea New Digital Media Euskadi Euskal Irratiak APixel Ikus-entzunezko ekoizpena Aspe pilotariak Morena Films Ikuspyme Gure Esku Ideien Faktoria Etxauzia Sonora Estudios Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea Media Attack Group Elkar argitaletxea Kursaal Promociones Audiovisuales Mugarik Gabe Argazki Press Garabide Kultur Elkartea Baleuko Kalakalab Mundukide Fundazioa Garabide Kultur Elkartea Aita Menni ospitalea Mondragon Taldea Lumaltik GKE Euskara elkarteak Basque Culinary Center Hainbat udal Ostadar argazkilari elkarteak Gipuzkoako Txirrindularitza Elkartea Debagoieneko Mankomunitatea**

## Mugikortasuna eta atzerriko egonaldiak

Erasmus+ programaren bidez, **Europako herrialde askotan** egonaldiak egiteko aukera izango duzu. **Latinoamerikara joateko bidea** ere izan dezakezu.

Graduaren mugikortasun programaren helburua da ikasle guztiak mugikortasun esperientziaren bat izatea, eta, gainera, esperientzia horietako %80 atzerrian gauzatzea.

## Unibertsitatea bizi!

Fakultateko campusetan aukera zabala dago kirolaz, kulturaz, eta oro har, aisialdiaz gozatzeko. Unibertsitatea, gainera, oso inplikaturata dago bere inguruarekin, eta **ikasleek ekintza ugari antolatzen dituzte** gizarte osoari zuzenduta: zinema jaialdia, lehiaketak, musika, dantza eta literatur emanaldiak, jardunaldiak...

## Aisialdia, kirola eta kultura

Hezkuntza-proiektuko zati garrantzitsu dira kirol ekintzak, besteak beste, ikaslearen bizi-tza-kalitatea hobetzea dutelako helburu. Horretarako, **Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen ditu** ikastaroak, irteerak, unibertsitate txapelketak, etab. Horrez gain, aholkularitza eta material mailegurako zerbitzua ere eskaintzen du.

## **Informazioa**

**Kreditu kopurua:** 240 ECTS.

**Iraupena:** 4 urte.

**Hizkuntza:** euskara, gaztelania eta ingelesa.

**Modalitatea:** presentziala.

**Prezioa:** 5.520 euro, 1. maila. (60 ECTS).

**Tokia:** Aretxabaleta.

**Koordinatzailea:** Idoia Astigarraga  
[iastigarraga@mondragon.edu](mailto:iastigarraga@mondragon.edu)

## **Zertan egingo dut lan Gradua bukatu eta gero?**

Gradua ikasita, **lanbide askotan** jarduteko prestatuko zara, esaterako:

- **Produktore eta kudeatzaile komunikazio esparruan.**
- **Erredaktore, eduki kudeatzaile Interneten eta bestelako hedabideetan.**
- **Ikus-entzunezkoen produkzio eta postprodukzioan.**
- **Komunikazio korporatiboan.**
- **Zuzendari, gidoigile eta ikus-entzunezko errealizadore lanetan.**
- **Diseinu grafikoan.**
- **Marketin digitalean.**

## **Bekabide**

**Bekabide programarekin, Mondragon Unibertsitateak egokitzen ditu ordainketak ikaslearen eta bere familiaren ahalbide ekonomikoetara, arazo ekonomikoak ez daitezten unibertsitatean ikasteko oztopo izan.**

Ikasketek ekarriko lituzketen gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta, kasuan kasuko azterketa egiten dugu, ondoren, erantzun pertsonalizatu bat emateko, interesik gabe, lehenengo urtetik hasita ezelako konpromiso barik.

Bestalde, kasuaren arabera, beka eta diru-laguntza ofizialak eskatu ahal izango dituzu. Horrez gain, Fakultatean bertan, beka-dun moduan, ordaindutako lan-eskaintzetan eman ahal izango duzu izena.





**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

---

**KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 31  
20550 ARETXABALETA  
Gipuzkoa  
600 09 71 09  
neskibel@mondragon.edu

[www.mondragon.edu/iko](http://www.mondragon.edu/iko)

ENTITATE LAGUNTAILEA

